

## **BALOREZKO PROPOSAMENA:**

Proiektu honen bidez trenaren energi- iturria modifikatu nahi izan dugu. Honetarako trenaren lehen bagoiko kabinaren frontala eraldatu beharko litzateke. Aldaketa honen oinarritzko kausa, elektrizitatea aurrezte eta trena ekologikoagoa bihurtzea da. Ideia nagusia haize- korrontearen bidez elektrizitatea eragitea edo lortzea da. Honetarako trenaren frontalean aire- sarrera eta helize bat instalatu beharko litzateke, eta horrekin, elektrizitatea sortzeko indarra jaso ondoren, kabinan instalatutako generadorera garraiatu beharko dugu indar hori elektrizitate bihurtu dadin. Honek, geure proiektuari begira, hainbat abantaila eta desabantaila ekar ditzake trenean.

Abantailen artean, energia-aurrezpena dago, izan ere, trenak energia gutxiago kontsumituko lukeenez, ideia on eta originala izango litzateke. Energia-aurrezpenak, bestalde, aurrezpen ekonomikoa ere eragingo luke eta diru gutxiago gastatuko bailitzateke trenaren erregaietan.

Desabantailek, izatekotan, puntako trenari eragingo liekete, zeren eta hauei ezin kendu ahal izango bait litzateke aerodinamika kendu, bestela trenak trena frenatuko egingo bailuke. Desabantaila orokorrago bat kabinako leku-murrizketa izango litzateke. Kabina txikitzean pilotuarentzat lekua murriztuko baikenuke eta bista kendu ezker, ziurtasuna ere galduko litzateke.